

JOXEMARI ESPARZA

Si canta Tafalla, canta Euskal Herria.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Josu Santesteban

«Harro nago mende erdi honetan egin dugun borrokaz»

Zer moduz bizi zara espainol izateari utzi zenionetik?

Sufritzen. Munduko injustiziez jabetzeak ondoeza dakarkizu. Espainol txotxolo nintzelarik zoriontsu bizi nintzen. Orain, independentzia droga da, eta oroz gainetik behar dut.

Espainol izateari utzi zeniola azaldu zenuen, espainolez idatzitako liburu batean.

Erromantzea nire ama hizkuntza delako. Eta euskaraz idazten ez naiz trebe. Gure belau-naldiak euskararen aldeko lana erdaraz egin du. Ikastola gehienak erdaldunek eraiki zituzten. Hala ere, nire semeek ez dute berriz hori egin beharko.

Seguru? Eskola horiek jazarri eta zigortu beharrekoak ziren Miguel Sanzen arabera.

Navarrerismo ergel hori da desagerrarazi behar duguna, Nafarroaren minbizia delako. Frankismoaren ondorio ustela, Trantsizioan indartu egin zena nafarron euskal arima ebas-teko.

Vascosnavarros deitu diozu azken liburuari; Euskal Herria fartsa delako, noski, Aznarrek gaztigatu bezala.

Bere aitona kontrakoa erraten zuen. Euskal Herria ukatzea 2000. urtetik aurrerako gauza da. Azken espainolkeria. Francoren garaian ere ez zen gertatzen.

Izan zitekeen berdin *navarrorriojanos*...

Sociedad Navarro-Riojanak hiru sarrera ditu Googlen. Sociedad Vasco-Navarrak 123.000.



Nafarrek, oro har, ez dute Euskal Herria izan nahi.

Hori arras koiunturala da eta aldatuko da beste egoera batean. Joerak hor daude eta etorkizun hurbil batean hauteskundeetan ere islatuko dira.

Baina ez al gara hauteskunde bakoitzean autodeterminatzen?

Hauteskunde guztiak ezberdinak dira. Hor dugu NATOren kontrako erreferenduma, guztien kontra irabazi genuena. Horregatik espainolek ez dituzte galdeketa maite.

Bide batez, ez dakit oso ondo atera diren gauzak azken Orreaga politikoan...

Herri gisa arras ongi atera ginen bozetan. Ezkertiar bezala pixka bat gehiago espero nuen. Alta, gehiago kezkatzen nau presoen egoerak. Uste dut ez dugula behar adina egiten.

Agian Lerin lehentxeago abandonatu balitz...

Lerinetik guztiok elkarrekin atera behar genuen, eta horrela izan da. Hori zen gakoa. Lehenago izanki, zatiketa zitura. Eta geroago, menturaz ere bai. Sagarra heldua zelarik erori da.

Bada ezker abertzaleak prakak jaitsi dituela pentsatzen duenik.

Ongi goaz ene irudiko. Hala ere, ez dira alor labainkorretan urrats gehiago eman behar. Etikarena esaterako. Etikaz utz daitezke armak, etikaz armak hartzen diren bezala. Ni, oro har, harro nago mende erdi honetan egin dugun borrokaz. ■

